

# Bilbao contemporáneo (1907-1911): Bilboko burgesia hazkorrari eskainitako koadernoak

*Jurgi Kintana Goirienea\**

Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea

En 1907 se publicó el primer cuaderno titulado Bilbao contemporáneo. En un formato de lujo se ensalza el proceso de crecimiento económico, industrial y material de Bilbao. Al mismo tiempo se homenajea a los empresarios protagonistas del proceso. Estos cuadernos que reflejan el éxito de la burguesía industrial bilbaina apenas han sido analizados por los investigadores y en este artículo ofrecemos una visión de sus contenidos y su evolución.

## **Bilbao contemporáneo (1907-1911): Bilboko burgesia hazkorrari eskainitako koadernoak**

1907an *Bilbao Contemporáneo* obraren lehen koaderno atera zen. Luxuzko argitalpen horretan, Bilboko eta Bizkaiko hazkunde ekonomiko, industrial eta materiala laudatzen zen. Halaber, garapen hori burutu zuten enpresa gizonei gorazarre egiten zitzairen. Bilbotar burgesiaren arrakastaren agerkari den obro hau, ez da egundaino aztertu. Hala bada, komunikazio honetan *Bilbao Contemporáneo*-ren berri emango dugu, haren sorrera, bilakaera eta ezaugarriak azalduz.

## **Contemporary Bilbao (1907-1911): Notebooks expressing the energy of the Bilbao bourgeoisie**

In 1907 the first notebook entitled Contemporary Bilbao was published. Produced in a luxurious format, it extolled the process of economic, industrial and material growth of Bilbao. At the same time it rendered homage to the entrepreneurs who were leading the process. These notebooks, which reflect the success of the industrial bourgeoisie of Bilbao, have barely been studied by researchers and in this article we offer a view of their contents and their evolution.

---

\* Gaur eguneko historia saileko ikerlari bekaduna.

## Sarrera

1876an Bigarren Gerra Karlista amaituz geroztik Bilbok eta bere inguruak izugarrizko aldaketa bizi izan zuten. Garai horretan burdin meatzeen ustiake-ta masiboa hasi zen, baita industrializazio prozesua ere. Horrek guztiak hazkunde demografikoa, urbanoa eta oro har gizarte osoaren eraldaketa ekarri zuen. Errotiko aldaketa sakon horiek, interes handi piztu izan dute historilariengan, eta hortik ikerketa ugari burutu izan dira. Bilboren hazkundearekiko mirespena, ordea, garaian bertan bizi izan zen; eta 1907-1911 artean, Bilboren eraldaketa horiek islatu nahi zituen argitalpena agertu zen: *Bilbao Contemporáneo*. Argitalpen honi buruz aipu bakanak besterik ez dira egin egundaino, eta gure asmoa haren berri ematea da.<sup>1</sup>

### 1. Testuingurua: hazkundera eta aldaketak

Esan den bezala 1876az geroztik, Bilbok hazkunde nabarmena bizi zuen. Datu gutxi batzuren bidez hobeto ikusten da hau.

Ekonomiari dagokionez, burdin mearen ustiaketan honako bilakabidea dakusagu:

Urtea	Toneladak urteko
1866-70	159.055
1871-75	243.720
1876-80	1.144.927
1881-85	3.329.231
1886-90	4.009.702
1891-95	4.394.683
1896-00	5.487.026
1901-05	4.885.405
1906-10	4.450.976

Bizkaiko burdin mearen ustiaketa (urteko batazbeste ateratako kopuruak)<sup>2</sup>

Meataritza aurreneko aberastasun iturria izan bazen, berehala jarduera industrial modernoak erantsi zitzaizkion, batez ere siderometalurgia, eta untzi-gintza. Eta horrekin batera merkataritza eta finantzak. Jarduera ekonomiko

<sup>1</sup> *Bilbao Contemporáneo* aipatu izan dutenen artean Juan Vidal-Abarca (1993: 214-215) eta Joseba Agirreazkuenaga (2000: 108-109) daude. Azken honi esker jakin dugu, hain zuzen, *Bilbao Contemporáneo*-ren bildumarik osoena Bizkaiko Foru Liburutegian zegoela. Bestalde, ikerketa eskemarako, zenbait argitalpen periodikoren gainean egin diren analisiak kontuan hartu ditugu, besteak beste Tuñón de Lara-k zuzenduriko lanean (1986) agertzen diren artikulua desberdinak eta Rodríguez-Urrioren tesia (1993).

<sup>2</sup> Cf. González-Portilla (1995: 137). Lan horretan bertan aurki daiteke Bilboko ekonomi hazkundearen inguruko informazio zabala.

berriek eskulan beharra sortarazi zuten, eta milaka langile erakarri. Hala demografiaren hazkundera, ekonomiaren paraleloan gertatu zen:

	Bizkaia	Bilboko ibaiadarra
1857	160.579	40.944
1860	168.705	43.270
1877	189.954	60.906
1887	235.659	103.644
1900	311.361	163.389
1910	349.923	188.707

Bilboaldeko eta Bizkaiko populazioaren bilakaera (1857-1910)<sup>3</sup>

Eraldaketa urbanoei dagokionez Bilboko burgesiak bizigune berriak sortarazi zituen. Hasteko Bilboko Zazpi Kaleen esparrua gainditzeko Abando udalerria Bilbora anexionatu zuen eta hartan Zabalgunea planifikatu. Lehen Mundu Gerraren hasierarako Zabalgunearen herena inguru, plaza eliptikoren pare-raino zehazki, eraikia zegoen. Gainera Bilboko burgesia aberatsak, mende hasieratik, bere bizigunea Getxora lekualdatu zuen, urbanizazio prozesu harri-garriak sortuz.

(Ez zen guztia arrosa kolorekoa baina. Burgesia aberastuaren kontrapartida langileria pobre eta zapaldua zen, bizi baldintza gogorrak, etxebizitza eskasak, eta gaisotasun zein hilkortasun tasa altuak jasan behar zituen. Industriak ingurumeneari eragindako kaltea ere ez zen txikia izan.)

Alfabetatzea, maila guztietan aurrera egin zuen arloetako bat zen. Eta faktore horrek lagundurik Bilboko gizarte industrializatu hartan kazetaritza profesionala aitzinatzen joan zen:

Bilboko egunkari kopurua:<sup>4</sup>

1867	4
1879	6
1887	14
1900	17
1913	22

Mende hasieran hiru izan ziren Bilboko egunkari nagusiak: *Noticiero Bilbaino* (independentea), *El Liberal* (errepublikar-sozialista) eta *La Gaceta del Norte* (kontserbadorea). Haiekin batera tirada txikiagoko beste hainbat egun-

<sup>3</sup> Cf. González-Portilla (1995: 130).

<sup>4</sup> Cf. Fernández-Sebastián (1990: 98).

kari eta aldizkari egon zen.<sup>5</sup> Testuinguru horretan, 1907ko azaroan, ikusi zuen argia *Bilbao Contemporáneo*-k.<sup>6</sup>

## 2. Luxuzko argitalpen baten morfologia

*Bilbao Contemporáneo*-ren neurria 47 x 36 cm.-takoa zen, aski handia garaiko aldizkariekin alderatuz gero. Horrek proiektuaren asmo grandiosoaz lehen pista ematen du. Argitalpenaren azalak, halaber, hainbat gauza esaten dizkigu koaderno hauen izaeraz. Material aldetik, azala malgua zen, kolore berde-urdin argiko kartulinaz egin. Azalaren erdialdean titulua azaltzen zen, eta beheaxeago koadernoaren zenbakia. Hori guztia inguratuz, grabatu eta apainduraz osaturiko marko bat zegoen. Bertan esanguraz beteriko sinboloak aurkitzen ziren.

Batetik, Bilboko eta Bizkaiko armarriak zeuden (goiko ertzean Bilboko eta behean Bizkaikoa), argitalpenak aztergai zuen esparru geografikoa zein zen argiro adierazten zutenak. Bestetik Bilboko garapen ekonomikoaren ikur ageriak dakusatzagu. Hola, fabrikak, untziolak, ibaiadarra eta gizonezko zein andrazko langileak (langileria industrialaren alegoriak) azaltzen zaizkigu. Hauek izan ziren Bizkaiko aberastasunaren lehen iturriak. Bestalde, azalean, Hermes jainkoa ere agertzen zen, merkataritza munduaren adierazgarri. Gogorra dezagun Hermesen irudiak garaiko Bilboko bankuak, burtsak eta bulegoak apaintzen zituela;<sup>7</sup> eta are Espainiako diru-txartel nagusiek (500 eta 1000 pezetatakoek) merkataritzaren jainkoa erakusten zutela. Ohargarria da, halaber, *Bilbao Contemporáneo*-ren azalean Hermesen irudia birritan agertzea, Bilbo modernoak bere-berea zuen sinboloa zela berretsi nahiko balitz bezala. Eta zentzu horretan, ez da kasualitatea hamarkada bat geroago hiri horrextan sorturiko kultur aldizkari nagusiak ere, jainko horren adbokaziopean aurkeztu izatea bere burua, haren irudia eta izena hartuz (*Hermes. Revista del País Vasco*)<sup>8</sup>.

Azaleko gainerako grabatuak, esangura hain markatukoak ez baziren ere, garaiko gustu estetiko burgesak islatzen zituzten. Hola, arabiar tankerako errosetoi bi aurkitzen ditugu, XIX mendeko azken urteetan modan egon zen arkitectura moriskoa imitatzen zutenak (pentsa Bilboko Iruña kafetegiko apaindura arabiarretan, edo Bilboko udaletxeko arabiar aretoan). Tankera klasiko grekadun banda ere badakusagu, apaingarri klasikoak oraindik nahiko ohikoak baitziren (cf. zertxobait berantiarra goa den Gran Viako Bilbao Ban-

<sup>5</sup> XIX mende amaiera, XX hasierako Bilboko prentsa ikus Saiz-Valdivieso (1977), Fernández-Sebastián (1990), Valverde (1995) eta Diaz-Noci (1995).

<sup>6</sup> Garai honetako Bilbori buruz, ikus González-Cembellín - Ortega (1990), Agirreazkuenaga - Serrano (1999) edo González-Portilla (1995).

<sup>7</sup> Bilboko eraikinertako Hermesen irudiaz zerbaite gehiago aurki daiteke in González de Durana (1992).

<sup>8</sup> *Hermes* aldizkariari buruz ikus Rodríguez-Urriz (1993) eta Agirreazkuenaga (2000).

kuaren oinarrietako grekak, adibidez). Bestalde, Hermes eta langileria industrialaren alegoriak inguratuz apaindura modernistak ditugu, ezen tankera horrek, nahiz apal eta berandu heldu, izan zuen oihartzunik Bilbon (Paco Durrioren bitxietan, Darroguy-ren eraikinetan, esate baterako Campos Eliseos teatroan, e.a.). Azkenik, modernismo eta *art decó* modaren artean garaturiko trantsizioko tankera ere jasotzen da *Bilbao Contemporáneo*-ren azalean. Zehazki goiko, beheko eta ezker aldeko bandetan; bertako motiboek pareko zehatzak izanik garaiko Bilbon (adibidez, Bizkaiko Foru Liburutegi barruko kristaleran topa daitezke). Azaleko estiloen nahasketa hau bera, mende hasierako burgeseriaren gustu eta moda eklektikoekin guztiz bat zetorren.<sup>9</sup>

Barruko orrietara igaroz, kalitate bikaineko inprimaketa aurkituko dugu. *Bilbao Contemporáneo* izena marko dotore batean sartuta agertzen zen, eta ondoren koaderno bakoitzeko izenburuak letra larritan. Artikuluetako testua zutabe bakarrean eta letra tipo berean idatzirik zegoen. Halere, artikuluen hasierako lehen letra, gainerakoak baino neurri handiagoko letra-tipo dekoratibo bat ohi zen, tankera modernistakoa hain zuzen. Era berean, artikulua amaiera batzuk tankera horretako apaindura abstraktuekin ixten ziren. Grabaturik edo irudi figuratiborik, aldiz, ez da aurkituko. Argazkiak, soilik ale batean azaldu ziren, laugarrenean. Eta aldika datu-koadroak agertzen ziren.

Orrialde kopurua oso aldakorra zen, 56 eta 120 artekoa. Edozein kasutan orrialde kopuru horiek gertuago zeuden liburuen neurritik garaiko aldizkarietatik baino. Halaber, sail finkoak eduki ordez, artikulua desberdinak ordena jakinik gabe lantzen ziren, eta publizitaterik ez zen agertzen. Maiztasunean ere berezitasun handiak azaltzen zituen *Bilbao Contemporáneo*-k: lehen alea 1907ko azaroan argitaratu zen, bigarrena 1908an, hirugarrena 1909an, eta laugarren eta guk dakigunetik azkena 1911n.<sup>10</sup> Aldizkari bat al zen? Urtekari bat behar bada? Ala liburu sorta bat? Ez da erraza erantzutea, liburu eta aldizkari arteko obra hibridotzat har daiteke eta. Azaleko diseinuak, numeraturik eta material malguz (tapa gogorrik gabe) eginik egoteak aldizkari antza ematen zion. Baina bere maiztasunak, eta orrialde kopuruak liburu bilduma batera gerturatzen zuen. Hortaz formato originaleko obratzat hartuko dugu. Azalean, zenbakiak «*cuaderno*» epigrafearen alboan azaltzen zirenez, guk ere 'koaderno' gisa izendatuko dugu obra hau, 'liburu' edo 'aldizkari' deitu gabe.

Argitalpena, oso-osorik gaztelaniaz idatzia zegoen. Prezioa ez dakigu zein zen, ez baita inon azaltzen. Baina argitalpenaren kalitatea ikusirik ez zen apa-

<sup>9</sup> Garaiko gustu estetiko-arkitektonikoei buruz ikus Nieves Basurtoren artikulua in González-Cembellín - Ortega (1990: 115-143). Azaleko ikonografiaren eta estiloen azterketa hau burutzeko, Javier González de Durana doktoreak adeitsuki egin dizkigun oharak ere lagungarri gertatu zaizkigu, zuzen edo oker ulertu izanaren erantzunkizuna, jakina, geurea izaki.

<sup>10</sup> Data horiek dedukzioz atera ditugu, zeren lehen alearen salbuespenaz, koadernoek ez baitute argitalpen urtea agertzen. Data zehazteko koadernoen barruko informazioa aztertu dugu, koadro estatistiko eta bestelako berri batzuk ze urteri dagozkion ikusiz.

la izango. Moldiztegia, aldiz, bai zehazten zaigu: «*Imprenta artística de Müller y Zavaleta, Gran Vía 24*». Hortaz formazko ezaugarri guzti hauek luxuzko lan baten aurrean gaudela erakusten digute, burgesiari zuzendua eta haren intereseko gaiak jasoko zituena.

Baina nondik sortu zen proiektu hau, nor izan zen haren sustatzailea?

### 3. Fermin Herranen azken proiektua

#### 3.1. Kultur eragile baten Bilborainoko ibilbidea

*Bilbao Contemporáneo*-ren sortzailea Fermin Herran arabarra izan zen (1852-1908). Familia dirudun beteko semea, Gasteizko Unibertsitate Literarioan egin zituen goi ikasketak, zuzenbide karreran doktore titulua eskuraturaz (1873). Baina arabar honen zaletasun nagusia, letra mundua izan zen. Idazle nekaezina, hainbat kultur elkargotako kidea izan zen, baita argitalpen ugariaren arduraduna ere. Dozena bat aldizkari sortu, zuzendu eta finantzatu zituen bere bizitzan zehar. Aipagarrienak hauek dira: *Revista de las Provincias Euskaras* (1878-1881), *La Ilustración de Álava* (1885-1890), *Revista de Vizcaya* (aurrekoaren Bizkaiko edizioa), *Revista de las Provincias* (1889) eta, jakina, *Bilbao Contemporáneo*.

Ideologikoki Herran foruzalea eta errepublikarra zen, Emilio Castelar espainiar buruzagi demokrataren lagun mina. Masoia ere izan zen. Baina, bere ideak gora behera pertsona irekia izan zen ideologia guztietako jendearekin. Hain zuzen, garaiko euskal eta espainiar kultur mundu osoarekin harreman estuak izan zituen Herranek. Berarekin tratua izan zutenen artean daude Arturo Campion, Emilia Pardo Bazan, Jose Manterola, Pio Baroja, Benito Perez Galdos, Antonio Trueba, Miguel Unamuno, Pablo Alzola, Jose Echegaray, Joaquin Costa, eta beste hainbat.

Harreman sare zabal horren sortzea Fermin Herranen bidaia ugariak lagundu zuten. Herranek Gasteiz gustuko izan arren, Madril bezalako hiri handien giro bizia maite zuen. Aldika, espainiar hiriburuan bizi ere egin zen, teatro, kafe eta zirkulu intelektualetan arraina uretan bezala mugituz. Ez zuen haatik Euskal Herria ahazten, eta bere asmoa kultur giro hori hona ekartzea zen. Azkenean 1890eko hamarkada hasieran, Herran Bilbora lekualdatu zen. Seguruenera Bizkiako hiriburua, urte haietan erdietsitako garapenari esker, Herranen gusturako aski handi eta zabala bihurtu zen. Horixe adierazi zuen behintzat 1907an: «*el nombre de Bilbao es universal, y participa de un caracter cosmopolita*»<sup>11</sup>. Hala, Madrilerako ihesaldiei uko egin gabe, Herran definitiboki Bilbon finkatu zen. Bertan, 1896 eta 1901 artean, bere kultur proiektu nagusia

<sup>11</sup> Cf. Fermin Herran (1907): «Prólogo», *Bilbao Contemporáneo*, 1. kuaderno, 7. orr.

burutu zuen. Izan ere bost urte haien artean, *Biblioteca Bascongada* izeneko liburu bilduma osatu zuen<sup>12</sup>, euskal autore ugariren hirurogeita bi titulu aterezaz.<sup>13</sup>

### 3.2. Bilbao Contemporáneo-ren sorreraren nondikoak

Mendearen azken urteetan, Herran kultur mundua uzteko zorian egon zen. Ramiro de Maeztu Herranen adiskideak hola kontatzen du:

Vivía en Bilbao hace veinte años. A pesar de su romanticismo incurable estaba a punto de convertirse en el abogado de los ricos, cuando se dejó contagiar de la locura financiera de 1899 y 1900. Ya había fundado su compañía, ya poseía en su cartera cinco o seis millones de pesetas *papel*. Un año más y... ¿Recuerda Pío Baroja aquel almuerzo del Hotel de París en Madrid? Fermín pensaba retirarse de los negocios para reanudar sus aventuras editoriales [...].<sup>14</sup>

Une horrexetan, 1901ean, otu zitzaion Fermini *Bilbao Contemporáneo* sortzea. Badirudi, beraz, negozio munduan zuzenean sartzeko tentazioari aurre egin arren, Herranek ez zuela Bilboko ekonomi hazkundearen lilura guztiz gaingitu, eta hola, mundu hura argitalpen batean islatzeko proiektua hasi zuela. Garapen kapitalistarekiko zoramena, Fermin Herranen gaztetandiko aurre-rapen ideiarekin uztartu bide zen. Eta gizarte osoaren aitzinamendu ideiarekin lekua, Bilbo eta bertako enpresarien aberastearen errealitateak bete zuen seguruenez.

Argitalpen hori sortzeko Herranek eman zuen arrazoiak, gure iritzi hau baieztatzeko. Izan ere, 1901ean, Victor Txabarri enpresaria hil zen. Eta, urte horretan bertan, heriotza haren haritik, *Bilbao Contemporáneo* proiektua iragartzeko prospektoa atera zuen Herranek. Bertan esaten zenez obra horren xedea Txabarri difuntua omentzea izango zen, horretarako hark bultzaturiko Bilboren garapena eta historia kontatuz, baita gainerako enpresariena ere. Aldi berean, Bilboren sorreraren Seigarren Mendeurrena ospatzeko ere balioko zuen obrak:

El siglo XIX termina; el Centenario de la fundación de Bilbao se intenta celebrar, ¿qué monumento más propio, para solemnizarlo todo, que el de una obra que historiase, por las artes de la imprenta y el grabado, la vida de seis siglos de existencia que lleva Bilbao, y presentase el cuadro actual de nuestra civilización, progreso y ade-

<sup>12</sup> *Biblioteca Bascongada*, Müller eta Zabaletaren moldiztegian atera zen (Vidal-Abarca 1993: 214), hau da, gerora *Bilbao Contemporáneo* argitaratuko zen enpresa berean.

<sup>13</sup> Fermin Herranen bizitzaren inguruan ikus Maeztu (1908), Echegaray (1909), Estornes-Zubizarreta (1985) eta batez ere Vidal-Abarca (1993).

<sup>14</sup> Cf. Maeztu (1908) (zerean aipatua: Estornes-Zubizarreta 1985: 290).

lanto, al concluir el siglo XIX, en cuyos últimos años figuran como motores de nuestra grandeza, junto á VICTOR DE CHÁVARRI, cuya vida termina con el siglo y marca la línea de nuestra prosperidad al comenzar el siglo XX, otras figuras que impulsan á pasos de gigante la marcha del pueblo vizcaíno, por el camino del progreso?<sup>15</sup>

Herranek proiektua aurrera ateratzeko (diru)laguntza eskatzen zuen «*de aquellos á quienes obliga su elevada posición; [...] las corporaciones con su apoyo debido; [y] el público con su ayuda*». Baina laguntza hori ez bide zen heldu. Bereziki pentsa daiteke Victor Txabarriren oinordekoek zikoitz jokatu zutela, ezen gerora, *Bilbao Contemporáneo* azkenean atera zenean, honako salaketa sotila egiten zuen: «*los interesados se olvid[an] de los que mueren, cuando sucediendo á estos en honores, riquezas y representación, debieran tener en poco, todos los sacrificios, para enaltecer la memoria de sus antepasados*».<sup>16</sup> Dena dela, kontuan hartu behar da Herranek proiektua aurkeztu zuen unea, 1901, ez zela aproposena izan dirulaguntzak eskatzeko, finantza munduak krisi larri bat jasan baitzuten urte hartan. Botere publiko eta kultur munduak ere ez bide zuen interes handirik agertu hiriaren urteurrena ospatzeko balio zezakeen argitalpen harenganako. Alde horretatik Herranen proiektua berandu heldu zen, Bilboren seiehun urteak 1900ean bete baitziren, eta izatez urte hartan *El Centenario* izeneko aldizkari dotore bat atera baitzen, argitaraturiko hiru aleetan Unamuno, Arriaga edo Guiard moduko autore ilustreen kolaborazioak jaso zituen.<sup>17</sup>

Hola bada, Herranen proiektua, zenbait urtez izozturik egon zen. Azkenean, 1907an, *Bilbao Contemporáneo*-ren lehen koadernoan atera zen. Herranek dioskunez «*nobilísimos protectores, [...] con una generosidad que sólo puede ballar justificación en el proverbio vulgar “Nobleza obliga” (pues el rico que no dá carece de nobleza), han asegurado, el que sea realidad, la publicación, en forma duradera del BILBAO CONTEMPORÁNEO*».<sup>18</sup> Laguntza hau gora-behera, Maezturen lekukotzari kasu egiten badiogu, badirudi proiektuaren balantze ekonomikoa ez zela hain ona izan, Herranek bere azken diruak proiektuan xahutu baitzituen: «*En esta obra el patricio arruinado entonaba su Salve —¡oh dolor!— a los enriquecidos*».<sup>19</sup> Dirua jarri ez ezik edukien gehiena ere berak idatzi zuen.

<sup>15</sup> 1901eko harpidetza prospektoa, Herranek 1907ko lehen koadernoan jaso (ikus «Prólogo», *Bilbao Contemporáneo*, 1. koadernoan, 10. orr.).

<sup>16</sup> Cf. Herran (1907): «De cómo se realiza la obra “Bilbao Contemporáneo”, *Bilbao Contemporáneo*, 1. koadernoan, 11. orr.

<sup>17</sup> *El Centenario*-ri buruzko informazioa in Fernandez-Sebastián (1990: 99-100). Aldizkari hori faksimilean argitaratu zuen 1996an Bidebarrieta Kulturgunek.

<sup>18</sup> Cf. Herran (1907): «De cómo se realiza la obra “Bilbao Contemporáneo”, *Bilbao Contemporáneo*, 1. koadernoan, 11. orr.

<sup>19</sup> Cf. Maeztu (1908) (zerean aipatua: Estornes-Zubizarreta 1985: 290).



Hurrengo urtean, 1908an, biriketako edema baten eraginez Herran zendu egin zen. Behar bada *Bilbao Contemporáneo* obraren bigarren koadernoak, Herranek, hil aurretik atera zuen. Baina ez dago seguru jakiterik, ez baita egilerik zehazten. Nolanahi ere *Bilbao Contemporáneo* ez zen hor amaitu. 1909an eta 1911n koaderno berriak argitaratu baitziren.

#### 4. *Bilbao contemporáneo*-ren edukiak

##### 4.1. Obraren xedeak: burgesiari gorazarre

Lehen koadernoak, 1907koak, portadillan, honako aurkezpen-izenburua agertzen zuen:

#### BILBAO CONTEMPORANEO

Transformación, progreso y desarrollo de Vizcaya en los tiempos contemporáneos, y hombres ilustres que han contribuido á ello bajo los aspectos minero, naviero, industrial, comercial, político, económico, administrativo, ferrocarrilero, gubernativo, intelectual, benéfico, jurídico, marítimo, religioso, arquitectónico, higiénico, militar y recreativo.<sup>20</sup>

Lehen koaderno horrek, hitzaurrean, proiekturaren nondikoak azaltzen zituen:

[¿]Por qué se titula esta obra BILBAO CONTEMPORÁNEO?

Porque Bilbao es, de lo nuestro, lo que más suena en el mundo; porque el Puerto de Bilbao es el punto de donde nuestros barcos van á todas partes y los de todas partes vienen á nuestro Puerto; y, así, el nombre de Bilbao es universal, y participa de un caracter cosmopolita, que difícilmente, se puede conceder a ningún otro puerto de España. Porque Bilbao es el asombro y la admiración de los que le conocen, y con razón, pues ya se puede echar uno á buscar pueblos, y no se encontrará uno, cuya existencia date de más de quinientos años, que en medio siglo, haya cuadruplicado su población y centuplicado su riqueza, sin que en esencia y en el amor haya dejado de ser el mismo.<sup>21</sup>

Ondoren, *Bilbao Contemporáneo*-k Victor Txabarriri eskainitako omenaldia izan nahi zuela adierazten zen, eta pertsonaia horren inguruko laudoriozko testuak azaltzen ziren. Era berean, Txabarriz gain Bilboko garapena bultzatu zuten gainerako enpresariak aipatzen ziren labur-labur: gandariastarrak, etxe-

<sup>20</sup> Cf. *Bilbao Contemporáneo*, 1. koadernoak, 3. orr.

<sup>21</sup> Cf. Fermin Herran (1907): «Prólogo», *Bilbao Contemporáneo*, 1. koadernoak, 7. orr.

barrietatarrak, allendetarrak, Aznar familiakoak, Sota, Martinez de las Rivas, e. a. Hola bada, *Bilbao Contemporáneo*, Bilboko garapenaren gorazarrezko obra zen, bereziki enpresa gizonei eta euren lanari eskainia. (Esan beharrik ez dago langileetaz guztiz ahazten zela obra hau, horrela argiro agertuz nori zuzendua zegoen eta egileen ikuspegia zein zen.)

#### 4.2. Landutako gaiak: ekonomia eta bezkuntza

Lehen koadernoan, aurkezpen eta eskaintzak egin ostean, edukiak hasten dira. 1907ko zenbaki horretan gai nagusi bi zetozen: Bilboaldeko meagintza-ren historia eta industriaren historia.

Meagintza-ren artikulua, erromatar garaitik 1876 arteko ustiaketaren bila-kaera laburtzen zuen, ondoren garai modernoetan sakon sartzeko: ustiaketa berrien nondikoa, Bizkaiko meatze guztien jabeen zerrendak, meagintza-ren arazo eta erronkak, e.a.

Bilboko industriaren historiari ere eskema kronologiko bera segitzen zuen, 1876 aurreko eta ondoko garaiak deskribatuz. 1907ko Bizkaiko industria guztiak zerrendatu egiten ziren, eta enpresa nagusien bila-kaera urte urte kontatzen zen, halanola AHV-rena, Altos Hornos de Bilbaorena, La Vizcaya-rena, e. a.

Bigarren koadernoak, 1908koak, «*Bilbao Comercial-Marítimo*» gaia lantzen zuen. Antzinako Erregimeneko egoera azaltzen zen hasieran, Bilboko kontsulatuak, Kontratazio Etxea, haren ordenantzak, e.a. Gero XIX. mende erdialdeko merkatal krisia eta 1876tik bizitako garapena zetozen, urterik urte izandako hazkundearekin. 1905 urtean Bilboko portutik igarotako produktuen zerrendak ere agertzen ziren, bertatik sartu eta irtendako guztiaren kontzeptu, pisu eta prezioak zehaztuz. Merkatariek sortutako erakunde batzuen berri ere ematen zen (Liga Vizcaína de Productores, Camara de Comercio, Circulo Mercantil e Industrial, e. a.). Eta aurrera begira landu eta zaindu beharreko merkatu berriak aztertzen ziren, Hego Amerikan arreta berezia jarririk.

Hirugarren koadernoak (1909), Bilboko ibaia eta portua monografikoki aztertzen zituen. Zehazki produkzio eta merkatal elkartruckerako esparru beza-la. Ohi zenez, historiatik abiatzen ziren artikulua, ibaiadarraren inguruko Antzinako Erregimeneko berriak eskainiz. Ondoren XIX. mendean zehar ibaiadarraren industria eta nabigaziora egokitzeko garaturiko proiektuak deskribatzen ziren. Kanpoko portuaren eraikuntza lanak trataera sakona jasotzen zuen. Eta amaitzeko, portu hori diseinatu zuen Evaristo Txurrukaren biografia eskaintzen zen.

Laugarren koadernoak (1911) «*Bilbao Pedagógico*» auzia zuen aztergai. Bilboko irakaskuntza maila guztiak erreparatzen zituen: neska eta mutilen oinarritzko eskolak, hezkuntzarako udal aurrekontuak, umeen koloniak, jantokiak, e. a. Ondoren Deustuko unibertsitatearen gaineko artikulua luze bat zetorren.



Argazkiaren iturria aipatu: Bizkaiko Foru Biblioteka.

Zentru horren inguruko datu ugariak, gainera, argazki askorekin apainduak azaltzen ziren. Gauza bera gertatzen da neskentzako Sagrado Corazón de Jesús kolegioari buruzko artikuluan, bertan ere zenbait foto aurkitzen baitira, hurrengo eta aurreko artikuluetan gertatzen ez zena. Azkenik lanbide hezkuntzako ikastetxe batzuen berri ematen zen, zehazki Artes y Oficios izenekoaren gainean, eta Escuela de Capataces zelakoaz.

Ez dugu koaderno gehiagoren berririk izan. Lehen alean iragartzen ziren gai guztiak aurreneko lau koadernoetan landu ez zirenez, hurrengo koaderno batzuetan jorratu zitezkeela pentsa daiteke. *Bilbao Contemporáneo* obraren asmoen ildoan, bereziki untzigintza, trenbideak, edo artea eta arkitektura moduko gaien falta nabari da. Baina ez dugu uste horietaz jardun zuen bosgarren koadernorik argitaratu zenik. Izan ere, lehen hiru koadernoak ekonomiaz aritu ondoren laugarren koadernoak gai berri bat hasi bazuen (hezkuntza), ez dirudi oso logikoa ustezko hurrengo koadernoak atzera egin eta ekonomia arloa berreskuratzeak. Agian arte aren inguruko koadernoren bat egin zen. Baina litekeenagoa dirudi lau koadernoak atera ondoren lana bertan behera geratu izateak, ezen obra guztiz biribila osatu ez arren, hain herren ere ez zen geratu.

Balantze orokorra eginez, eta aipatu gabeziak zituela onarturik, *Bilbao Contemporáneo* obran Bilboko ekonomia eta hezkuntzaren ikuspegi orokor nahiko ona eskaintzea lortu zen, datu ugari eta zehatzekin. Eta esan daiteke garaiko sintesi lanik onenetakoa izan zela. Balio tekniko horrek, noski, ez du kentzen *Bilbao Contemporáneo* ideologia jakin baten arabera idatzia izan zenik.

#### 4.3. Bilboko oligarkiaren imajinario amankomunaren isla

Koaderno hauek agertzen zuten ideologia guztiz desarrollista zen. Garapen kapitalistaren apologia argia, burgesia handiaren gustuen araberakoa. Landu-tako gaiak, halaber, koadernoak elite bati zuzendurik zeudela erakusten dute, zehazkiago enpresa munduan aritua zen eliteari, ekonomia kontuak ulertu eta gustatu ahal zitzaizkion horrexeri. Eta espezifikoki gizonezko eliteari, koadernoetako protagonistak «*Bilbao Contemporáneo y sus hombres ilustres*» baitziren, sekula ez emakume ilustreak (bestalde, garai hartan, ekonomia gaiak ez bide ziren emakumeentzat irakurgai egokitzat hartuko, nahiz emakume horiek burgesak izan).

Koadernoen esparru geografikoari dagokionez, jada esan dugu Bilbo eta Bizkaia zirela. Edo hobeto esan Bilbo eta haren proiektzio eta *hinterland* gisa ulertzen zen Bizkaia. Obra honetan, Bizkaiaren berezitasun nagusia ez zen haren noblezia edo foru izaera tradizionala izango, baizik Bilbok markatzen zuen nortasun berria. Eta nortasun horren zeinu nagusia ere ez zen hiri inbiktoaren ohiko ideologia liberala. Elementu politikoak oro, bai liberalak, bai foralak, bai bestelakoak, ahaztu eta baztertu egiten ziren. Garrantzitsuena Bilbok bideratu zuen garapen ekonomikoa zen. Horretan funtsatzen zen Bilbo eta Bizkaiaren izaera berezia, euren garapen eta aurrerapenean. Imajinario bilbotar-bizkaitar horren inguruko teorizazio garaturik egin ez arren, argi dago inplizituki ikuspegi horrek orientatzen zuela *Bilbao Contemporáneo* lana.

Bilbo desarrollistaren imajinario hori, XIX. mendeko azken urteetan hasi zen agertzen, industrializazioaren eta hazkunde ekonomikoaren errealitatea, intelektualki ere onetsiz eta goretsiz joan zenean. Pablo Alzola enpresariak —Fermin Herranen adiskidea berau— defentsa ideologiko-oligarkikoa egin zuen 1890eko hamarkadatik<sup>22</sup>. Pentsalari literarioagoak laster agertu ziren, adibidez Ramiro de Maeztu, Bilboaldeko burgesia handiren eta industriako langileriaren epika laudatuz. Hain zuzen, Fermin Herranen *Biblioteca Bascongada* bilduman atera zuen Maeztuk *Hacia otra España* saiakera (1899), bertan, besteak beste, industrialismo hori aldarrikatuz. Maeztu bezala eta haren atzetik, beste hainbat idazle jo zituen Bilboko ekonomi garapenaren sukarrak, Fermin Herran tartean. Eta enpresarien artean apologista berriak agertu ziren, adibi-

<sup>22</sup> Cf. Elorza (1978: 120-124).

dez Julio Lazurtegi. Bilbo hazkorraren imajinario horrek, baina, aldi batez lehiakide bat izan zuen Bilboren gaineko imajinario nostalgiko burges txikian, Emiliano Arriagak (adib. *La pastelería* eleberrian) edo Manuel Losadak (pinturan) idealizatu zutena. Zer esanik ez, Zazpi Kaletxuen imajinario goxoa porrotera kondenaturik zegoen. 1901ean, *Bilbao Contemporáneo* proiektu soil zenean, oraindik dudaren bat egon zitekeen; are gehiago urte hartan hiriko burtsak krak egin eta negozio mundu harroak astinaldi latza jasan zuenean. Baina 1907an, koadernoak argitaratzen hastean, aurrerakada ekonomikoa baieztaturik zegoen, eta imajinario industrialistaren garaipena erabatekoa zen. Koadernoen agerrera horren lekuko eta froga zen.

Fermin Herranen koadernoetako imajinarioak, alde formalki politikoei jaramonik ez egitean, eta Bilboren nortasunaren oinarria haren oldar ekonomikoan kokatzean, industri gizon handi guztiek, beren diferentzia ideologikoen gainetik, elkarbanatzen zuten imajinario amankomuna islatzen zuen. Bilboren imajinario hazkor horrek izan zitzakeen barianteak eurak, halanola lehen Maezturen kutsu sozialistakoak, edo Alzolak eransten zion joera protekzionistakoak, albo batera uzten ziren. Enpresari guztiek onartzen zituzten ezaugarri minimo komunetara murrizten zen imajinarioa: industri munduaren apologia, hazkundearen gorazarrea, Bilbo eta Bizkaia dinamikoari omenaldia. Sota enpresari abertzaleak, Etxebarrieta errepublikarrak edo Lezama-Legizamon dinastikoak, bat egin zezaketen *Bilbao Contemporáneo*-ko imajinarioa desarrollista horren inguruan. Gerora, hurrengo hamarkadan, oinarri soziologiko eta sinboliko oligarkiko horren gainean, kultur proiektu zabalago bat eraikitzeko saioa egin zen, *Hermes* aldizkariarena. *Hermes*-ek, negozioen gorazarre hutsa baino askoz kultur egitasmo aberatsagoa eskaini zuen. Baina izenburuan bertan argiro agertzen zen *Hermes*-en abiapuntuko imajinarioa, *Bilbao Contemporáneo*-k transmititzen eta finkatzen lagundu zuen huraxe bera izan zela.

## 5. Azken aharrak

Ikusi dugunez, *Bilbao Contemporáneo* koadernoek Herran hil ostean ere irteten segitu zuten. Alde batetik gauza bitxia da, Herranen ordurarteko proiektuak bere indar hutsez eutsi baitziren eta Herranek haiek uztean amaiera ikusten baitzuten. Behar bada kasu honetan Herranek kolaboratzailearen bat edo batzuk izan zituen eta bera hil ondoren haiek segitu zuten lana. Edota argitalpen hau, Herranek aipatzen zituen babesleek («*Nobilísimos protectores, que [...] han asegurado, el que sea realidad, la publicación, en forma duradera del BILBAO CONTEMPORÁNEO*») ateratzen segitzea bermatu zuten. Edozein kasutan zuzendari edo idazle berri horien izenik ez da agertzen. Arduradun horiek, behar bada, Herranek bizi zela utzitako materiala baliatu zuten. Baina testu berriak ere asko egin zituzten, azken bi koadernoetako artikulua Herran hil ondoko datu eguneratuekin agertzen baitira.

Espekulatzen jarrita promotore berrien eskua ere susma daiteke, bereziki

laugarren alean: ordurarteko koadernoak ekonomia inguruko gaiez izan ondoren, eta oraindik arlo hori agortu aurretik (adibidez untzigintza aztertu gabe utziz), laugarren koadernoak hezkuntzaren gaira pasatu zen. Eta arlo horren baitan trataera berezia jaso zuen Deustuko unibertsitateak (eta neurri apalagoan Sagrado Corazón kolegioak), argazki ugarirekin eta are kolore gorriko (kasu bakarra lau koadernoetan) letra-dekoratibo batekin, gainerako ezein artikulutan gertatzen ez zena. Eduki aldetik ere eta egungo hitzekin esanez ‘publierreportaia’ bat ematen du. Deustuko unibertsitateak eta Sagrado Corazón kolegioak subentzionaturiko koaderno bat izan al zen laugarrena? Ezin seguru jakin.

Edozein kasutan hala bazen, euren zentruak promozionatzeko komunikabide ezin aproposagoa aukeratu zuten Deustu eta Sagrado Corazónekoek. Zeren ez da dudarik obra hau espreski burgesiak irakurtzen zuela. Ikusi ditugun *Bilbao Contemporáneo*-ren luxuzko ezaugarriek eta eduki elitistek irakurlego potentziala argi salatzen dute. Baina, gainera, irakurlego hori baieztatzen duen informazio zuzena ere badaukagu: «*Bilbao Contemporáneo, [...] tenía por suscriptores a todos los hombres de dinero y negocios de la villa opulenta.*»<sup>23</sup> Ramiro de Maezturen baieztapen kategoriko horrek goi klaseen artean zabal-kunde handia zuen obra zela esaten digu. Eta Herran hil ondoren argitaratzen segitu izanak erosle interesatuak mantendu zituela baieztatuko luke.

Argitu gabe geratzen diren datuen artean *Bilbao Contemporáneo*-ren idazleak daude. Koadernoek inon ez zuten zehazten zeintzuk ziren. Agertzen zaigun izen bakarra, lehen koadernoak dakarren Fermin Herranena da. Koaderno horretako artikulua ere berak idatzi bide zituen, han aipatzen zituen Pablo Alzola, Julio Lazurtegi eta beste batzuen lanetako informazioa erabiliz. Ezin jakin hurrengo koadernoetako testuak zeintzuek idatzi zituzten, ez baita inon esaten. Ezta noiz ordezkatu zuten Herran ere. Izatez Herran zendu osteko *Bilbao Contemporáneo* koadernoek ez zioten oroitzapen hitzik ere eskaini euren sortzaileari. Maeztuk esan bezala, pobre eta baztertuta amaitu zuen aberatsei gorazarre egin nahi izan zienak. Eta amaiera triste hori ikusita, argi dago Herranek Victor Txabarriren heriotzaren gainean idatzi zuena, gehiago zegokiola Herran beraren azkenari:

Por algo dijo el inmortal poeta Gustavo Adolfo de Becquer:

¡Dios mío qué solos  
se quedan los muertos!

Es plaga incurable del corazón humano la ingratitud, y los contemporáneos olvidan y no agradecen<sup>24</sup>

<sup>23</sup> Cf. Maeztu (1908) (zerean aipatua: Estornes-Zubizarreta 1985: 290).

<sup>24</sup> Cf. Herran (1907): «De cómo se realiza la obra “Bilbao Contemporáneo”, *Bilbao Contemporáneo*, 1. koaderno, 11. orr.

## Bibliografía

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba (2000): *Hermes. Revista del País Vasco. Bilbao 1917-1922: Hiria, gizona, aldizkaria. La ciudad, el hombre, la revista*, Bidebarrieta Kulturgunea-Bilboko Udala, Bilbo.
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba - SERRANO, Susana (1999): *Viaje por el poder en el Ayuntamiento de Bilbao. Bilboko Udal agintean barrena:1799-1999*, Bidebarrieta Kulturgunea-Bilboko Udala, Bilbo.
- DIAZ-NOCI, Javier (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena, 1834-1939*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ECHEGARAY, Carmelo (1909): «Necrología de D. F. Herrán», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, (2.), 140-141.
- ELORZA, Antonio (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco*, Haranburu, Donostia.
- ESTORNES-ZUBIZARRETA, Idoia (1985): «Herrán Tejada, Fermín», *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia, 289-290.
- FERNANDEZ-SEBASTIAN, Javier (1990): «El despegue de la prensa en Bilbao, 1813-1914. Periodismo, política, información y sociedad», J. M. González-Cembellín - A. R. Ortega (arg.) (1990): *Bilbo, arte eta historia. Bilbao, Arte e historia*, II. tomoa, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 79-110.
- GONZALEZ DE DURANA, Javier (1992): *Rekalde, 30. Bulegotarako eraikinen tipologia Bilbon*, Bilbo.
- GONZALEZ-PORTILLA, Manuel (zuz.) (1995): *Bilbao en la formación del País Vasco contemporáneo (economía, población y ciudad)*, Fundación BBV, Bilbo.
- GONZALEZ-CEMBELLIN, J. M. - ORTEGA, A. R. (arg.) (1990): *Bilbo, arte eta historia. Bilbao, Arte e historia*, 2 tomo, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- MAEZTU, Ramiro de (1908): «¿Un ideal de vida? Fermín Herrán», *Nuevo Mundo* [Madrid], 1908.10.15 (orain in (1974): *Obras*, Editora Nacional, Madrid).
- RODRIGUEZ-URRIZ, María Begoña (1993): *Una empresa cultural bilbaína: Hermes*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- SAIZ-VALDIVIESO, A. C. (1977): *Triunfo y tragedia del periodismo vasco (1900-1939)*, Editora Nacional, Madrid.
- TUÑÓN DE LARA, Manuel (1986): *La Prensa de los siglos XIX y XX. I Encuentro de Historia de la Prensa*, UPV-EHU, Bilbo
- VALVERDE, Lola (1995): «Los comienzos de la Prensa vasca», *Gran Atlas Histórico de Euskal Herria. Nosotros los Vascos*, J. Agirreazkuenaga (arg.), Lur, Bilbo, 377-384.
- VIDAL-ABARCA, Juan (1993): «Fermín de Herrán y Tejada», *Los Herrán: historia y genealogía de una familia vasca*, Azterlanak, Gasteiz, 171-216.